



EITB GALA

Kepa Junkerari aitortza bikoitza egin diote EITB Galan

IRENE ELORZA GEREÑO

Bertan egon ez arren, Kepa Junkera izan zen atzo Victoria Eugenia antzokian ospatu zen EITB Galako protagonista nagusia. Telebista publikoak bere 40. urtemuga ospatzeko aukeratutako leloak, 'Batzen gaituzten emozioak', inoiz baino zentzu gehiago hartu zuen atzoko ekitaldian. Izan ere, Fermin Aiok idatzi eta zuzendu duen *Kepa Junkera berpiztu* film dokumentalaren aurre-estrainaldia trikitilari bizkaitarrari omenaldi xume bihurtu zen. Aurpegi ezagun ugari zapaldu zuten alfonbragorria, antzokiaren kanpoaldean bildutako ikusleen gozamenerako, eta barruan egoteko aukera izan zuten ikusleek une hunkigarriak bizi zituzten, hasieratik bukaerara.

Aurkezleak adierazi zuenez, "bide berriak urratu eta erakutsi ditu Kepa Junkerak eta Euskal Herria eta soinu txikia, trikitixa, mundu osoan ezagu-

tarazi duen pertsona izan da; horregatik eta Euskal Herriko musikaririk handienetako bati eskerrak emateko elkartu gara hemen gaur". Kepa Junkerak 40 urtetan 30 disko egin zituen 2018ko abenduaren 6an, kontzertu baten ondoren, iktus bat izan zuen arte. "Bat-batean, diskrezio osoz, isildu egin zen, baina hortxe dago eta gaur hori ikustera etorri gara; ikusi eta entzuterara, oraindik zeresan handia eman duen pertsona eta sortzaile baten aurrean gaudelako", gaineratu zuen.

EITB Galan musikariari buruzko dokumentala proiektatu aurretik, Eneko Goia Donostiako alkateak 2020ko Adarra saria eman zien Junkearen senideei, bilbotar musikariak ezin izan baitzuen orduan jaso. "Aukera ezin hobea daukagu gaur duela bi urtez geroztik dugun zor bat kitatzeko", adierazi zuen alkateak, "Adarra saria gordeta izan dugu aukera iristeko zain eta pentsatu dugu garaia



Kepa Junkeraren senideek jaso zuten Adarra Saria.

GARI GARAIALDE

zela saria bere irabazleari helarazteko, gu guztion esker onarekin eta maitasunarekin batera". Trikitilariaren ibilbidea goraiatzeaz gain, bizitzak jarri dion "aldapa malkartsua" ere igo duela eta eredu garritat jo du Goiak: "Adarra Saria urtez urte euskal musikaren izarren konstelazioa osatzen ari da eta gaurtik Aurrera zeru horretan badugu beste izar bat. Zorionak, Kepa! Eutsi! Ziur naiz hemen gauden

guztion desioa dela berriz ere zuzenean zure maitasunaz gozatzeko aukera izatea".

Kepa Junkeraren ama, Kontxa Urraza, eta haren hiru seme-alabak igo ziren oholtzara, saria jasotzera. Kerman Junkerak aitak idatzitako mezua irakurri zuen, hunkituta: "Eskerrik asko danori, gogoratzegatik. Hondartzako futbolaz maiteminduta nago, baita ezagutu eta sentitu ahal

izan nuen Atotxa futbol zelai zaharraz, oso berezia zen, Gipuzkoa osoa den bezalaxe. Satrustegi, Zamora, Idigoras, Kortabarria, Gorritz, Martinez... eskerrik asko! Zumaia eta bere flysch-a. Gipuzkoa oso inportantea da nire bizitzan, bertako musikariak bezalaxe: Laja, Landakanda, Epelde, Iturbide, Auntxa, Elustondo eta abar, ezin denak aipatu. Ez badirudi ere, Athletic zalea naiz!".

Donostia

Zinema hiria, zientzia hiria
Ciudad de cine, ciudad de ciencia
City of cinema, city of science

Ikastetxeak Belodromoan
Iraila 16,19-23 Septiembre



SSIFF Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival



EUSKADIKO FILMATEGIA
FILMOTECA VASCA



DIPC Donostia
International
Physics Center

